



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Itzultzea errepikatzea al da?
Euskarazko testuliburu eta
unibertsitate-eskuliburu
entestualizazioan diharduen
agente-sarea**

Lamia Filali-Mouncef Lazkano

141-148 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.17>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Itzultzea errepikatzea al da? Euskarazko testuliburu eta unibertsitate-eskuliburuaren entestualizazioan diharduen agente-sarea

Lamia Filali-Mouncef Lazkano

UPV/EHU, NOR taldea

lamia-filalimouncef@ehu.eus

Laburpena

Bidean dugun tesian, datu-bilketa itzulpen-katalogo bat eginez hasi genuen, eta bertan euskaratutako testuliburu eta unibertsitate-eskuliburuaren inbentario mugatu bat egin genuen. Katalogoaren analisisian testu-genero horiei erreparatu bezain laster, ordea, haien sorkuntzan agente-sare zabal batek diharduela ikusi dugu, zeinak modernitate berantiarreko informazioaren gizarteetan ohikoak diren komunikazio-ekintza konplexuak osatzen dituen. Artikulu honetan, komunikazio-ekintza horien berri eman nahi dugu; horretarako, testu-mota horiek itzultzeko ekintzak diskurtsoaren analisisitik nola azaldu daitezkeen proposatuko dugu, *entestualizazio* kontzeptua aplikatuta.

Hitz gakoak: itzulpengintza, diskurtsoaren analisia, ikasmaterialak, entestualizazioa

Abstract

I started the collection of the data of my PhD by making a translation catalogue of school and university textbooks translated into Basque. As soon as I started analyzing the catalogue, I saw that in the creation of this type of text genres there is a constellation of agents who carry out complex communicative acts typically associated with information societies of late modernity. The aim of this article is to show how translating these sorts of texts can be considered a type of entextualization, a concept borrowed from discourse analysis.

Keywords: translation, discourse analysis, textbooks, entextualization

1. Sarrera eta motibazioa

Testuak mugitu egiten dira. Liburutegietan atseden hartzen, denboran mugitzen dira. Eskuz, mekanikoki edo elektronikoki erreproduzitzean, testuak espazioan ere lekualdatzen dira. Itzuliz gero, gizatalde batzuetatik beste batzuetara mugitu daitezke. Eta euskarri material baten beharra dutenez, ez dira betierekoak: klik bakarrean desagerraraz daitezke. Itzultzaile profesionalari testu bat heltzen zaionean ere, galdera ikur handi batekin iristen zaio: zergatik igaro du testu honek niganainoko distantzia bat, eta noraino heldu behar da? (Pym, 2018 [1992]: 134). Labur esanda: pentsa daiteke itzulpenak ez direla bat-batean ezerezetik agertzen, agenteek material diskurtsiboa lekualdatzen dutelako baizik, komunikazio-behar konkretuei erantzunez.

Zentzu horretan, ulertu liteke zerbait berriro esatea, itzultzen denean bezala, ez dela inoiz *gauza bera errepikatzea*, izan ere, minutu bat geroago esan arren, jada ez da une bera. Denboraz gain, askotan pertsonak ere alda daitezke nahiz eta *gauza bera esan* (hots, material diskurtsibo bera aipatu arren): Mikelek Mariari esan ahal dio Alaitzek afaltzera gonbidatu dituela. Alaitzek esan du, baina Alaitz ez dago fisikoki hor, ez dago komunikazio-ekintzaren materialitatean presente. Hortaz, zerbait berriro esatean, testuingurua aldatu egiten da, hein handiagoan edo txikiagoan, eta beste norbaiten hitzak errepikatzeko ere bai: “whenever we use a voice of another, in what looks like just reiteration of that voice, we do something entirely different” (Blommaert, 2020: 2:59 minutua).

Baieztape horretatik abiatuta egin dugu artikulu honetan aurkeztuko dugun analisia: itzultzaileen jarduna testuarteko fenomeno gisa zein modutara uler daitezkeen azaltzeko interesa dugu, zehazki testu-eraketa edo *entestualizazio* gisa. Izan ere, itzultzea askotan transferentzia prozesu mekaniko gisa irudikatzen da, baina errealitate sozialarekin kontrastatzen den unetik ikus daiteke zenbateraino den itzulpen bat, edozein alorretakoa izanik ere, prozesu soziokultural bat. Tesian itzultzaileek euskararen biziberritzeari egiten dizkieten ekarpenetako batzuk eta topatzen dituzten muga batzuk detektatzea interesatzen zaigunez, itzulpenaren izaera soziokulturala ulertzea ezinbestekoa dela dugu, biziberritzea bera denboran luzatzen den prozesu dinamiko eta soziala delako, agenteek eraikia.

Horregatik, analisi honetan agenteetan jarri dugu fokua, zehazki tesirako katalogatu ditugun testuen sorkuntzan parte hartzen duen agente-sarean. Agente horiek material diskurtsiboa

testuinguru batetik bestera lekualdatzerakoan *nola bihurtu duten testu berri bat* erakutsi nahi dugu bi adibideren bidez. Lehenik, analisi honen aurrekariak eta helburua azalduko ditugu, baita metodologia ere. Ondoren, analisiaren emaitzak aurkeztuko ditugu eta, azkenik, ondorioekin, bibliografiarekin eta esker onekin itxiko dugu artikulua.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Testu unitatea oso erabilgarria da *diskurtsoa* aztertzeko, hau da, komunikazio-ekintzen multzoak (Blommaert, 2005: 2), izan ere, alboan dituen elementuak aztertuta –horiei *testuinguru* izena eman zein *kotestu*¹ edo *paratestu*²–, bere ingurune soziokulturalarekin nola harremantzen den behatu ahal da:

The text idea allows the analyst of culture to extract a portion of ongoing social action [...] from its infinitely rich, exquisitely detailed context, and draw a boundary around it, inquiring into its structure and meaning. This textual fragment of culture can then be re-embedded by asking how it relates to its 'context', where context is understood as nonreadable surround or background (or if the context is regarded as readable, by asking how the text relates to its 'co-text') (Silverstein & Urban, 1996: 1 in Blommaert, 2005: 47).

Egiten diren ekintzen ikuspegitik begiratuta, testu batek zentzua izan dezan bi ekintza dira ezinbestekoak: lehena, testuari testuingurua ematea (testuinguratzea), bigarrena, testu-forma ematea (entestualizatzea): “[t]he process of coming to textual formedness we term entextualization; the process of how discourse points to (indexes) the context which seems to frame it we term contextualization” (Silverstein, 2019: 56). Eta testuak ez dira kaotikoak, patroiak osatzen dituzte; horregatik sailkatu ditzakegu testu-generoen arabera. Horrela, testu-generoek espektatibak sortzen dituzte hiztunengan. Adibidez, *behin batean* esan bezain laster, espektatiba batzuk sortzen zaizkigu: pertsonaia-motak, ildo narratiboak... (Blommaert, 2015: 112).

Kontzeptu horretatik tiraka ondorioztatu da idatzitako eta esandako testu oro dagoela elkarrizketan aurreko testuekin, auresuposatzen dituelako eta erantzun egiten dielako, eta, era berean, etorkizunerako edozein testutarako oinarriak jartzen dituelako (Bakhtin, 1979/1986 in Hughes & Tracy, 2015: 4). Adibidez, *behin batean* irakurri ostean txosten tekniko bat topatzen badugu, inkoherentzia edo lizentzia estilistiko gisa ulertuko dugu. Argitaraturiko testuliburuek eta unibertsitate-eskuliburuek testu-genero bana osatzen dute, eta, beraz, espektatiba batzuk daude haiekiko: zer estilo eta erregistro diren egokienak, zertarako diren, zer baimentzen den eta zer ez, nola antolatu behar diren, etab.

Testu argitaratuak itzultzean eta editatzean, testu gisa osatua zen diskurtsoa beste hizkuntza bat erabilita erreproduzitzen da testuinguru berri batean (Bauman & Briggs, 1990 eta Silverstein & Urban 1996 in Kalliokoski & Mäntynen, 2022: 183). Hortaz, itzultzailearen eta gainerako profesionalen lanetako bat izango da neurtzea zenbateraino aldatu diren espektatibak lekualdaketa horren ondorioz. Hala, prozesu horrek berekin dakar sorburu- eta xede-testuen testuarterako loturak eta hutsuneak agenteen artean *negoziatzea*, baita testu berriek dituzten balioak, tonuak eta historia zeintzuk izango diren *erabakitzea* ere. Horregatik, itzultzea entestualizatze prozesu gisa har liteke (Kalliokoski & Mäntynen, 2022: 183).

Entestualizatzea testuarterekotasun fenomeno bat da, eta diskurtsoa destestuinguratzean eta birtestuinguratzean datza, modu horretan diskurtso berria izan dadin eta testuinguru berri bati lotuta ulertu dadin. Ekintza horiek metadiskurtsiboak dira, lekualdatu den diskurtso hori *irakurtzeko modu egokia* eskainiko dutelako: oharrak jarri, maketazio berria egin, editatu, sinatu, aipu bidez haien oihartzunak sortu, beste diskurtso-fluxu batean txertatu, adibide gisa erabili... Diskurtso berri hori *testu* bihurtu da: bere interakzio-ingurunetik erauzi da eta testuinguru berriarekin batera helarazi da (Blommaert, 2005: 47)³.

¹ Kotestua da, aipuan irakur daitekeen bezala, testuaren interpretazioa ahalbidetzen duten hitzak.

² Paratestuak dira testuaren inguruan dauden datuak, eta bi motatakoak izan ohi dira: peritestuak eta epitestuak. Lehenak liburuaren barruan kokatzen dira eta testua liburu bihurtzen dutena dira: kapituluaren izenburuak, hitzaurreak, eskubide-orriak, azalak... Epitestuak, berriz, liburuaz kanpo topa daitezkeen hari buruzko informazioek osatzen dituzte, literatur kritiketan, albisteetan, etab. (Genette, 1997 in Manterola, 2012: 103-104).

³ Entestualizazio adibideak dira norbaitek esandakoa transkribatzea (Silverstein, 2019: 61-61), testu akademiko batean autore bat aipatzea edota Mastodonon norbaitek esandakoa bultzatzea eta iruzkintzea (alegia, Twitterren bertxiotu eta aipatzearen baliokidea egitea, Blommaert, 2020: 3:35).

Entestualizazioa aztertzeak diskurtsoak duen *historia* ikusarazteko balio du, eta testuartekotasuna aztergai enpiriko bihurtzen du (Blommaert, 2005: 47). Hala, jatorrizko testuinguratzeko-ekoizpena egon beharrean, geruza berriak agertzen dira, eta testua konplexu metadiskurtsibo batekin batera dator, testuari buruz gauza berriak iradokitzen dituenak: “through this reflexive dimension, [entextualisation] amends overly linear or static views of context, adding an important praxis-related dimension to text-context relationships” (Blommaert, 2005: 47-48).

Pentsa daiteke entestualizazio prozesu horiek aztertzen dituztela Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileek. Izan ere, IIDek itzulpena *material semiotikoaren transferentzia* gisa ulertzen dute (Toury, 1980: 12). Baina, entitate semiotiko arrunta edo lehen mailakoa ez bezala, itzulpena *beste zerbaitetik eratorria* da, beste zerbaiten errepresentazioa delako, eta zentzu batean *beste sistema batekoa* ere badelako aldi berean: “every instance of transfer has to do with two semiotic entities and the two respective systems underlying them” (Toury, 1980: 12).

Hori dela eta, IIDek, batetik, amaierako produktu eta kulturean jartzen dute enfasia, itzulpen jakin batzuek xede-gizartearen zer leku duten behatzeko, eta, bestetik, transferentzia-prozesuan gertaturiko hainbat alderditan jartzen dute arreta. Hasteko, itzulpenek haien sorburu-testuekin zer-nolako loturak dituzten begiratzen da. Horrez gain, agenteek (batez ere itzultzaileek) itzulpen horiek diren modukoak izateko zer erabaki hartu duten begiratzen da (Arrula Ruiz, 2018: 3-4). Alegia, material diskurtsiboa *eratorria* denez eta beste zerbaiten *errepresentazioa*, testuarteko lotura horiei begiratzen diete IIDek, baita lotura horiek mundu materialean nola gauzatu diren ere, testuak enpirikoki behatuz eta konparatuz⁴. Beraz, pentsa liteke entestualizazio prozesuari erreparatzen diotela, alegia historia diskurtsiboaren une batzuei.

Argitaratutako testuetan, gehienetan, entestualizazioa profesional ezberdinen arteko prozesu bat izaten da (Kalliokoski & Mäntynen, 2022: 183). Hain zuzen ere, Master Amaierako Lanean (MALean) ikusi genuen gurea bezalako modernitate berantiarreko gizarte batean testuak oso fenomeno konplexuak izan daitezkeela, eta itzulpengintza profesionalaz ari garelarik, kolaborazio-prozesu bat izan ohi direla, hots, agente-sare bati esker eraman ohi direla aurrera (Filali-Mouncef, 2021; 2022). Ikusi genuenez, ezaugarri nagusietako bat da parte-hartzaileen edo agenteen konplexifikazioa. Horrekin esan nahi dugu igorle-hartzaile kate klasikoa hartuz gero, batetik, igorlearekin batera (sorburu-egilea) igorlekideak daudela (itzultzaileak, zuzentzaileak, maketatzaileak, editoreak, teknikariak, aholkulariak, edukian adituak...), eta, bestetik, hartzaileak gutxienez bi motatakoak izateaz gain (nahi gabeko hartzaileak, azken erabiltzaileak), hartzaile bakoitzak geruza ugari dituela aldi berean (identitate ugari), eta hartzaile potentzialen geruza horietako bakoitzari zuzendua izan daitekeela testuaren formulazioa. Horrez gain, itzulpenen kasuan beste figura inportante bat ere badago: itzulpenaren abiarazlea edo enkargu-egilea, askotarikoa izan daitekeena.

Agente-sare hori antolatzeke orduan, Itzulpen Ikasketek luze teorizatu dute, Skopos teoria funtzionalistetan bereziki. Guk, ordea, egungo gizarteetako konplexifikazio hori ulertzeko hurbiletik eta situazioz situazio begiratu behar zaiola pentsatuta, MALean *komunikazio-situazioei* begiratzea baliagarria dela ondorioztatu genuen, alegia, komunikazio-rolari. Horretarako, Goffman mikrosoziologoaren ideietan eta hura Itzulpen Ikasketetara ekarri dituzten bi autoreren lanetan oinarritu ginen (Goffman, 1975; Katan, 2009, 2019; Mossop, 2009 in Filali-Mouncef, 2021).

Metodologiari dagokionez, tesiaren helburu zabalagoei begirako itzulpen-katalogo bat eratu genuen zenbait irizpide barne hartzaile hartuta: kronologikoak, espazialak eta diskurtso komunitateei dagozkienak⁵. Artikulu honetako analisirako, berriz, itzulpen-katalogoko bi liburu hautatu dugu. Horretarako, fisikoki argazkiak egiteko eskuragarri genituen artean entestualizazioa eta agente-sarea argien adieraz zezaketenak hautatu genituen. Ondoren, paratestuen argazkiak egin genituen. Testuliburuaren kasuan, euskarazko liburuarenak eta

⁴ Hori bai, IIDak normalean ez dira testu bakar batean fokalizatzen, baizik eta testu-multzo paraleloetan (corpus elebidun eta eleaniztunetan), erregulartasunak bilatzeko interesa baitute.

⁵ Hala, EAEko testuliburuak eta unibertsitate-eskuliburuak hautatu genituen, euskararen biziberritzearen hirugarren (1994-2007) eta laugarren fasekoak (2007-) (Larrinaga, 2019: 79-81), EIMArean edota EHUko Euskara Zerbitzuaren berrikuspen linguistikoa izan dutenak eta biologia, historia eta filosofia arlokoak.

gaztelaniazkoarenak, EHUKo Leioako Campuseko hezkuntzako testuliburuaren artxiboan. Eskuliburuaren kasuan, EHUKo liburutegiko katalogoa kontsultatu genuen, ingelesezko eta euskarazko edizioak mailegatu, eta argazkiak atera genizkien. Hautaturiko paratestuak azalak, kontrazalak, lehen orriak, hitzaurreak eta eskubide-orriak izan dira. Sorburu- eta xede-testuen paratestuak konparatu ditugu, zer aldatu den behatzeko eta, hala, entestualizatu den konplexu diskurtsibo berria identifikatzeko.

3. Ikerketaren muina

Egindako itzulpen-katalogoan agente-sare zabal eta konplexu bat identifikatu dugu, egungo informazioaren gizarteetako testu askoren kasuan bezala egon ohi den *igorlearen konplexifikazioa* ilustratzeko balio duena. Hasteko, argitaletxeak daude, 1. taulan ikus daitekeen gisan. Gure itzulpen-katalogoaren kasuan 9 ageri dira. Horrez gain, 13 itzulpen-enpresa, -erakunde, -elkarte edota -fundazio identifikatu ditugu. Azkenik, banakoak ere badaude, alegia, lan espezializaturen bat egin dutenak, eta *igorlekidetzat* har daitezkeenak (Filali-Mouncef, 2021; 2022). Aipagarria da lan espezializatu horiek egiten banakoak izen-abizenez egon beharrean, batzuetan taldeak daudela (argitaletxeetakoak edo itzulpen-taldeetakoak).

1. taula. Itzulpen-katalogoan presente dauden agenteak.

Argitaletxeak	Itzulpen-taldeak	Banakoak. Argitaletxeetako, itzulpen-taldeetako zein kanpoko langileak.
Testuliburuetakoak: • Erein • Giltza • Haritza • Ibaizabal • Ikasmina • Vicens Vives • Zubia Eskuliburuetakoak: • EHUKo Argitalpen Zerbitzua • Klasikoak, S.A.	Aztiri Bakun Bitez Di-da itzulpenak Elhuyar Hitzurun Kalegana Labar taldea Labayru Maramara Rosetta Saretik UEU	Sorburu-egileak Edizioa (sorburu eta xedezkoa) • Editoreak • Zuzendariak • Koordinatzaileak Hizkuntza espezialistak: • Itzultzaileak • Zuzentzaileak (sorburu eta xedezkoak) Edukian espezialistak: • Begirale teknikoak • Edukien egokitzaileak Diseinu grafikoak: • Ilustratzaileak • Irudien egileak • Mapen egileak • Diseinatzaile grafikoak Maketazioa eta inprimaketa: • Maketatzaileak • Inprimaketa-enpresak Bestelako eduki-aholkularitzak: • Aholkularitza pedagogikoa • Irakurgaien egileak • Hitzaurreen egileak

Agente-sare zabal horrek sorburu-testuko material diskurtsiboa euskarara ekartzean egindako entestualizazioari erreparatzeko bi adibide emango dugu.

3.1. Testuliburu adibidea

Aukeraturiko testuliburua 2008. urtekoa da, LH4ko *Inguruaren ezaguera* ikasgaikoa. Gaztelaniazko bertsioa Edelvives taldeak argitaratu zuen, eta euskarazkoa Edelvives barruko Ibaizabal argitaletxeak. Eskubide-orrietan (1. eta 2. irudiak) eta lehen orrialdeetan liburua agente-sare zabal batek ondu duela ikus daiteke. Hasteko, sorburu-egileak bi lekuetan agertzen dira: lehen orrietan, bestelako eduki-aholkularitzekin batera (pedagogikoa...), eta copyrightean, argitaletxearekin batera. Igorlekideei dagokienez, goiko 1. taulako hirugarren zutabean proposatu dugun sailkapena aplikatuta, honako lanen arduradunak aipatzen dira: edizioaren arduradun eta koordinatzaileak, diseinua eta irudiak, hizkuntza-lanak, eta, azkenik, maketazioa eta inprimaketa.


Bi testuen egile-eskubideetan oinarrituta egindako konparazio-taulari erreparatuz gero (2. taula), berriz, ikus daiteke lan bererako egile berriak gehitu direla euskarazkoan, gaztelaniazkoan ez zeudenak, entestualizazioa iradokiz (geruza berriak), eta baita itzulpen-norabidea ere

(gaztelaniatik euskarara). Hain zuzen, edizio-, irudigintza-, koordinazio- eta maketazio-lanetan zenbait pertsona berri agertu da, baina jatorrizkoak mantendu egin dira (ikus 2. taula). Euskarazkoan, gainera, figura berri bat agertu da: testuaren arduraduna, jatorrizko egilea ez dena, eta Aztiri ondasun erkidegoak (itzultzaile autonomoen elkarteak) dauka horren ardura. Zuzentzailea ere aldatu egin da, jatorrizkoa ordeztuta ageri baita. Azkenik, gaztelaniazkoan zegoen kartografia atala desagertu egin da, euskarazko bertsioan jada maparik ez dagoela edo aipatu ez den beste norbaitek egin dituela iradokiz.

1. irudia. *Conocimiento del Medio* liburuaren eskubide-orriak (goiko alde).



2. irudia. *Inguruaren Ezaguera* liburuaren eskubide-orriak (goiko alde).



2. taula. *Inguruaren Ezaguera* liburuako igorlekideen izendapenak eta entestualizazioan aldaturikoak.

Komunikazio- ekintzako igorlekidearen lan espezializatua	Izendapena gaztelaniaz	Izendapena euskaraz	Arduradunak	Euskarazkoan gehituriko arduradunak	Nola gehitu da
Edizioa	Jefa de proyecto	Proiektuaren arduraduna	Menchu Tadeo		
	Editores	Edizio koordinazioa	Elsa Álvarez, Flavio Martín	Jabi Artaraz	besteen aurretik
	Colaboradoras	Kolaboratzaileak	Zoa Caravaca, Laura González	Belinda Isasi	besteen aurretik
Diseinu grafikoa eta irudiak	Proyecto visual y dirección de arte	Arte zuzendaritza	Departamento de imagen y diseño GELV / GELVeko irudi...		
	Diseño gráfico del proyecto	Proiektuaren diseinu grafikoa	Sebastián Baigún		
	Fotografía de cubierta	Azaleko argazkia	Nicolas Huerín		
	Ilustración	Ilustrazioa	Sergio Guinot, Alberto Pieruz, Sara Rojo	Ima Mendiola	
	Cartografía	-	Geoglobal.cAd, s.l.		desagertu egin da
	Fotografía	Argazkiak	AGE Fotostock, Gettyimages, Cover, NASA, Prisma, Archivo Edelvives / Edelviveseko artxiboa	Jabi Artaraz	besteen ostean
Hizkuntza espezialistak	-	Testua		Aztiri	gehitu egin da
	Corrección	Testuaren zuzenketa	Maria Teresa de la Fuente	Belinda Isasi	bestearen ordez
Koordinazioa, maketazioa eta inprimaketa	Coordinación de producción	Produktzio koordinazioa	Pablo Silva Fernández	Inazio Jaio	bestearen aurretik
	Maquetación	Maketazioa	Lola García Gómez	Ander Lauzirika eta Inazio Jaio	bestearen ostean
	Fotomecánica	Fotomekanika	Da-Vinci		

	Impresión	Inprimaketa	Talleres Gráficos Edelvives Ctra. de Madrid... / Edelvives Tailer Grafikoak...	
--	-----------	-------------	---	--

3.2. Unibertsitate-eskuliburu adibidea

Adibide gisa biologia arloko *Bloom eta Fawcett-en Histologiaren sintesia* liburua dugu, ingelesetik euskaratua⁶. Aurreko adibidekoa baino diskurtso-historia erregistratuagoa eta luzeagoa du, izan ere, hainbat ediziotatik eta hizkuntzatatik pasa den erreferentziazko testu kanonizatua dugu, bi hizkuntzetako kontrazalean eta hitzaurrean irakur daitekeenez. 1928an Alexander Maximov histologo errusiar-estatubatuarra idatzitako eskuizkributik abiatuta, William Bloom medikuntzako irakasle estatubatuarra egungoaren oinarria den liburua osatu zuen:

At the time of his death, Maximow was writing a text-book on histology. A few chapters had been completed, but many were in rough manuscript or still in Russian. His colleagues in the Department of Anatomy "felt very keenly the desirability of seeing the book completed," and, at the suggestion of Bensley, Bloom undertook the unenviable task. [...]. After seven English editions, Bloom was joined by Professor Don W. Fawcett, the distinguished anatomist and cytologist of Harvard University, for the eighth and ninth editions of this authoritative reference. It has been translated into many languages, including Spanish, Portuguese, and Korean. Subsequent editions have been rewritten in part and edited by Fawcett only (Singer, 1993: 26).

Beraz, pentsatzekoa da Maximovek errusieraz eta ingelesez idatziko zituela bere izkribuak, baina ez dakigu nola edo nork itzuli zituen errusierazko atalak ingelesera. 60ko hamarkadatik aurrera Fawcett-ek hartu zuen Bloomen lekukotza, hura ere AEBetako unibertsitate-irakaslea. Ikasketa-programak aldatu ahala, 1997an edukia *Concise Histology* liburuan laburtu eta eguneratu egin zen, Fawcett-en hitzaurrean irakur daitekeenez. Hori da 2008an euskarara itzuli dena, euskal irakasle zein biologiako, biokimikako eta osasun-zientzietako ikasleentzat. Argitaraldi horrez gain, 2002ko bigarren bat ere badago ingelesez, guk kontsultatu ahal izan duguna, hain zuzen ere.


Hala, entestualizazio-adibide aberatsa dugu, ikasmaterial horren zirkulazioa eta mugimendu diskurtsiboak ikus ditzakegulako bai denboran, bai espazioan, baita gizataldeen artean ere. Izan ere, ederto islatzen du akademiak ezagutza tratatzeko duen ohitura edo *testu-generoaren konbentzioa*: autoreak aipatzea, baita haien ideiak eta noizkoak diren ere.

Agente-sareari dagokionez, interesgarria da entestualizazioa oso modu zehatzean adierazita topatu daitekeela euskarazko liburuaren eskubide-orrian (3. irudia), izan ere, argi eta garbi adierazi dute zein hizkuntzatatik eta ediziotatik itzuli duten, eta sorburu-testuaren xehetasunak eman dituzte. Halaber, entestualizazioa zertan izan den eta nork egin duen dago adierazita: EHUKo Euskara Zerbitzuak koordinatu du itzulpena, itzultzaileak Elhuyar Fundaziokoak dira eta haien izen-abizenak daude, eta bi motatako berrikuspene egon da, hizkuntzazkoa eta edukizkoa. Azkenik, copyrightak eta fotokonposizio zein inprimaketa lanak aipatzen dira. Nabarmentzekoa da copyrighta unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuarena dela, sorburu-egileenaz gain. Dena den, ez daukagu gure sailkapeneko gainerako lanen berririk: diseinuaren eta irudien ardurarenak edota maketazioarenak.

Ingeleseztako bigarren edizioko eskubide-orrian, berriz, euskarazkoan ageri diren ingelesezko argitaraldiei buruzko informazioak daude, eta gure sailkapenean ez dagoen figura bat agertu da: banatzailea. Kasu honetan, AEBetako banaketa Oxford University Press-ek egin duela aipatzen da. Beste lan batzuetako arduradunak ere ageri dira: edizioa, produkzioa eta azalaren diseinua. Hala, euskarazkoarekin konparatuz, hizkuntza-lanak ez dira beren-beregi aipatzen, baina bai banaketa, produkzio eta diseinu-lan batzuk.

Hortaz, eskuliburu honetan, testuliburuan bezalaxe, liburua osatzeko agente-sarea berdin sailka genezake: sorburu-egileak, edizioa, hizkuntza-lanak, edukian espezialistak, diseinua eta irudia, eta, azkenik, maketazioa eta inprimaketa.

⁶ Bigarren argitaraldia topatu genuen, ez zehazki jatorrizko lehena.



3. irudia. *Histologiaren sintesia* liburuaren eskubide-orria.

4. Ondorioak

Artikulu honetan itzultzaileen jarduna testuarentako fenomeno soziokultural gisa zein modutara uler daitekeen azaldu nahi izan dugu, zehazki testu-eraketa edo *entestualizazio* gisa, diskurtsoaren analititik harturiko kontzeptu bat (Blommaert, 2005; Kalliokoski & Mäntynen, 2022; Silverstein, 2019). Horretarako, gure tesirako bildu eta analizatu dugun itzulpen-katalogoan oinarritu gara, zeina euskarara itzulitako testuliburuaren eta unibertsitate-eskuliburuaren inbentario mugatua baita.

Ikusi dugun bezala, testu-mota horien sorkuntzan agente-sare zabal batek dihardu. Hala, komunikazio-ekintza sinpleetan dagoen igorleaz gain, igorlekideak ere badaude, eta *konplexifikazio* bat gertatzen da. Katalogoko agente-sarea sailkatzeko hiru talde bereizi ditugu: argitaletxeak, itzulpen-taldeak eta banako espezialistak. Horien artean identifikatu ditugu testu-generoak sortzeko egon daitezkeen honako lan-hauen arduradunak: sorburu-egileak, edizioaren arduradunak, hizkuntza-espezialistak, edukian espezialistak, diseinuaren eta irudien egileak eta bestelako eduki-espezialistak. Partaideen konstelazio hori ikusita, pentsa daiteke euskaraturiko testuliburu eta unibertsitate-eskuliburuak sortzeko modernitate berantiarreko informazioaren gizarteetan ohikoak diren komunikazio-ekintza konplexuak gertatzen direla, igorleaz gain lan espezializatu eta profesionala egiten duten igorlekide ugari dagoelako.

Testuliburu- eta eskuliburu-adibide banatako paratestuen azterketa eginik, entestualizazioa IIDen metodoen bidez aztertu daitekeela ikusi dugu, eta material semiotikoa eratzeko eta jatorrizkoa errepresentatzeko (Toury, 1980: 12) bi modu ezberdin ikusi ditugu testuaren makroegituran. Hain zuzen ere, bi libururen azalak, kontrazalak, eskubide-orriak eta hitzaurreak begiratuta, material diskurtsiboari *konplexu metadiskurtsibo berriak* –“geruza” berriak– gehitu zaizkiola eta beste batzuk ordeztu zaizkiola ikusi dugu (testuliburuan), eta, era berean, diskurtsoa denboran, espazioan eta gizataldeen artean mugitu egiten dela (eskuliburuan). Konplexu metadiskurtsibo berri horiek testua *nola irakurri behar dugun* adierazi digute, hau da, zer testu-mota diren: testuliburu itzulpena denik ez da erabat argi aurkeztu, eskuliburu, berriz, bai. Azkenik, testuok, itzulpenak ez diren testuen aldean, *diskurtsoaren historia* azaleratzen dute, nondik eratorria den agertzen baitute, analizatutako eskuliburuan modu ageriko eta zehatzagoan testuliburuan baino. Hortaz, itzulpenen entestualizazioa aztertzeak diskurtsoa zirkulazioan eta etengabeko fluxuan dagoela ikusteko balio du. Hala, testuak euskarara itzultzea bera zirkulazio eta fluxu hori aktibo egoteko modu bat dela ulertu daiteke.

Hortaz, irudikatu ohi denaren kontra, pentsa daiteke itzultzea ez dela *kodeari* soilik dagokion transferentzia prozesu mekaniko huts bat, baizik eta testuinguruaren geruza askori eragiten dion fenomeno konplexu bat. Izan ere, diskurtsoa mugitu egiten da *ekintza sozialak* daudelako. Eskuliburuaren kasuan ikusi dugunez, motibazio didaktikoak bultzatuta, eduki espezializatua XX. mende hasierako AEBetako irakasle errusiar batengandik egungo ikasle euskaldunenganaino igaro da, agente-sare zabal bati esker.

5. Etorkizunerako planteatzeko den norabidea

Analisiak hainbat ate utzi ditu irekita. Biziberritzeari dagokionez, gaztelaniazko jatorrizko testuliburu eta euskarazko itzulpena konparatuta, pentsa liteke agente-sarea mehetu egin dela euskaraz, eta, beraz, pertsona ezberdinen arteko hizkuntz erabilera ere. Izan ere, jatorrizko gaztelaniazkoa sortzeko elkarren artean komunikatu diren eta diskurtsoa produzitu duten eremu profesionaleko lantalde horiek guztiak (irakasleak, pedagogoak, diseinatzaileak, ilustratzaileak, kolaboratzaileak, argazkilariak, inprimaketa-enpresako langileak...) euskarazkoan pertsona berak dira. Komunikazio-ekintza horiek ez dira euskaraz gertatu. Era berean, horrek esan nahi lezake euskarazko testuliburuaren gaineko ardura handiagoa dutela edizio-taldeak eta hizkuntz espezialistek, lana esku gutxiagoren artean banatzen delako. Antzeko ideia bat ondorioztatu genuen MALean, hots, hizkuntza gutxituetako itzultzaileek beste hizkuntza batzuetako itzultzaileek baino ardura handiagoa dutela komunikazio-ekintzan. Testuliburuaren kasuan, ardura hori argitaletzeko langileekin partekatua dela pentsa daiteke. Etorkizunean argitu beharko dugu.

6. Erreferentziak

- Arrula Ruiz, G. (2018). *Autoitzulpenaren teoria eta praktika Euskal Herrian*. UPV/EHU.
- Bauman, R. & Briggs, C.L. (1990). Poetics and performance as critical perspectives on language and social life. *Annual Review of Anthropology*, 19, 59-88.
- Bakhtin, M. (1979/1986). *Speech genres and other late essays*. Austin, TX: University of Texas Press.
- Blommaert, J. (2005/). *Discourse: A Critical Introduction*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511610295>.
- Blommaert, J. (2015). Chronotopes, scales and complexity in the study of language in society. *Annual Review of Anthropology*, 44(1), 105–116. <https://doi.org/10.1146/annurev-anthro-102214-014035>.
- Blommaert, J. (2020-06-25). *Jan Blommaert on entextualization* [Video recording]. <https://www.youtube.com/watch?v=NV9eG6hVRvo>.
- Filali-Mouncef, L. (2021). *Dimensión social e intercultural de la traducción en Euskal Herria: Interacciones y mediación entre la traductora y otros agentes*. Universitat Oberta de Catalunya.
- Filali-Mouncef Lazkano, L. (2022). Itzultzaileak eragile soziokultural gisa Euskal Herrian. *Senez*, 53, 209–229.
- Hughes, J., & Tracy, K. (2015). Indexicality. In K. Tracy, I. Cornelia, & T. Sandel (Arg.), *International Encyclopedia of Language and Social Interaction*. John Wiley & Sons. <https://doi.org/10.1002/9781118611463.wbielsi078>
- Kalliokoski, J., & Mäntynen, A. (2022). Language ideologies and the translation of scholarly texts. In S. K. Määttä & M. K. Hall (Arg.), *Mapping ideology in discourse studies* (or. 179–200). De Gruyter Mouton. <https://doi.org/10.1515/9781501513602-010>
- Larrinaga, A. (2019). *Euskal telebistaren sorrera, garapena eta funtzioa euskararen normalizazioaren testuinguruan*. UPV/EHU.
- Manterola Agirrezabalaga, E. (2012). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulua. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*. UPV/EHU.
- Pym, A. (2018 [1992]). *Translation and text transfer: An essay on the principles of intercultural communication*. Intercultural Studies Group. http://usuaris.tinet.cat/apym/publications/TTT_2010.pdf
- Silverstein, M. (2019). Texts, Entextualized and Artifactualized: The Shapes of Discourse. *College English*, 82(1), 55–76. <https://doi.org/10.58680/ce201930305>
- Silverstein, M., & Urban, G. (1996). *Natural histories of discourse*. Chicago: University of Chicago Press.
- Singer, R. (1993). William Bloom 1899-1972. A Biographical Memoir [online PDF]. In *National Academy of Sciences*. <https://www.nasonline.org/directory-entry/william-bloom-nkeiqz/>
- Toury, G. (1980). *In search of a theory of translation*. Porter Institute for Poetics and Semiotics, Tel Aviv University.

7. Eskerrak eta oharrak

Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak emandako doktorego aurreko laguntzari esker egin ahal izan da. Eskerrik asko Agurtzane Elordui Urkiza eta Elizabete Manterola Agirrezabalaga tesiko zuzendariei.